

Euskara sustatzeko hiruhilabetekaria
2014ko urtarrila | 0. alea

Zabalgana HLHIko guraso elkartea



sasoia

“Sasoian sasoikoa, tokian tokikoa”

EDITORIALA

Aldizkari honen helburua argia da: euskara sustatzea. Familiak harekin jolastea eta bertatik informazioa jasotzea.

Sasoiko lehenengo ale hau eskolako ortu ekologikoari eskaintzen diogu.

Guraso elkarteak ortu ekologikoa martxan jartzen ari da, irakasleen eta zentroko gainerako langileen laguntzaz. Azken baten, eskolako ortua zera da, aire zabalean gauzatzen den natur zientzien laborategia.



Zabalgana HLHI
Nazio Batuen hiribidea, 10
01015 Vitoria-Gasteiz
Telefona: 945 06 48 62
Faxa: 945 06 48 63

Amezti Txiki Guraso Elkarteak
ampa@zabalganaeskola.org

www.zabalganaeskola.org

Saso
sasoizabalgana@gmail.com

Gasteizko Udalak diruz lagundutako aldizkaria.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

BARATZEARI BURUZKO HIZTEGITXOA

Baratzeko lanei buruz / Sobre las labores del huerto:

Landu, laboratu / Labrar
Ongarritu, simaurtu / Abonar
Erein / Sembrar
Uzta, bildu / Cosechar

Tresnak / Herramientas:

Aitzur / Azada
Sarde / Bieldo
Arrastelu, eskuare / Rastrillo
Konpostagailu / Compostadora

Hazi diren barazkiak / Verduras de semilla:

Ilar / Guisante,
Baba / Habas
Indaba, babarrun / Judía verde
Soia / Soja

Sustrai diren barazkiak / Verduras de raíz:

Arbi / Nabo
Errefau, lutxarbi / Rábano
Azenario / Zanahoria
Manioka, juka / Mandioca

Tuberkulu diren barazkiak / Verduras de tubérculo:

Patata / Patatas (papas)

Erraboil diren barazkiak / Verduras de bulbo:

Berakatz, baratxuri / Ajos
Tipula / Cebollas
Arbi-aza / Colirrábanos
Mihilu / Hinojo
Txerri-arbi / Remolacha

Zurtoin diren barazkiak / Verduras de tallo:

Porru / Puerro
Zainzuri / Espárrago

Hosto diren barazkiak / Verduras de hoja:


Zerba / Acelga
Apio, perrexil heze / Apio
Borraja / Borraja
Kardo / Cardo
Aza / Col
Eskarola, ozterzuri / Escarola,
Ziazerba, espinaka / Espinaca,
Uraza, letxuga / Lechuga

Lore diren barazkiak / Verduras de flor:

Orburu / Alcachofa
Brokoli / Brócoli
Azalore / Coliflor

Fruitua diren barazkiak / Verduras de fruto:

Alberjina, berenjena / Berenjena
Kuiatxo, kalabazin / Calabacín
Kuia, kalabaza / Calabaza
Luzoker, pepino / Pepino
Piper / Pimiento
Tomate / Tomato



ELKARRIZKETA AITOR AMILIBIA ETA ROBERTO DE MIGUEL

Nekazari ekologikoak. Guraso elkartearen aholkulariak eskolako ortu ekologikoa diseinatzeko eta martxan jartzeko.

Zer esperientzia izan duzue barazki-zaintzan?

Aitor: Natura betidanik gustatu izan zait eta orain dela urte batzuk konturatu nintzen ortugintza ekologikoa naturarekin harremana sendotzea zela. Hasieran nire etxeko leihoetako loreontzietan letxugak jarri nituen. Komunikatzea eta umeak asko gustatzen zaizkidanez, geroago gizarte etxeetan umeentzako eta nagusientzako ortu ekologiko tailerrekin hasi nintzen, eta orain hektarea erdiko lur-sailean familientzako barazki ekologikoak ekoizten ditugu astero banatzeko.

Roberto: Txikitatik izan dut gogoa landareak eta animaliak BEHATZEKO, eta denbora luzea ematen nuen gurasoen terrazan landareak ereiten eta zaintzen. Ahal bezain laster ortu txiki bat erosi nuen eta geroago Aitorrekin hasi nintzen barazkiak pozoirik gabe ekoizten. Mundua ekologikoki bideragarria da.

Ortu ekologikoaren aldekoak zarete. Zer da ekologikoa izatea eta zergatik horren alde? Ez du ekoizpen handiagoa izango "betiko moduan" egiten badugu? Naturaren oinarriak jarraitzea da. Naturan zer gertatzen den begiratu, ikasi eta aplikatu natura zati txiki den gure ortu horretan; hori da agroekologia.

Gizakia orain dela 10.000 urte nekazaritzan aritzen delarik, eta jakinda bakarrik azkeneko 60 urteetan zehar erabili izan



dituela gai sintetikoak nekazaritzan, "betiko" nekazaritza garbi daukagu zein den: nekazaritza naturala, logikoa, natura eta pertsonen ongizatearen logikara mugatzen dena. Lurra "betiko moduan" lantzea da, hain zuzen ere, ekologikoa. Nekazaritza ez ekologikoak biodibertsitatea galtzea dakar eta ez da bideragarria, ez ekologikoki ezta ekonomikoki ere.

Metodologia ekologikoa erabiliz gero, zer egin behar dugu izarri baten aurrean gaudenean?

Agroekologiaren begiradarekin normalean arazoek mezu bat bidaltzen digute: ez gara zerbait kontuan izaten ari. Arazoak horren sintoma edo alarma dira. Egin beharreko galdera "zergatik?" da.

Ehun landare-zorri metro karratu batean ez da izurria eta ia ez diote eragingo gure uztari. Miloi bat landare-zorri metro karratu batean bada izurria. Izurriak gertatzen dira naturan desoreka dagoenean. Soro batean bizirik gabeko lurra dagoenean, herbizidak, intsektizidak eta fungizidak erabili direlako, bertan landu diren landareak ere gai kimiko horiek ahulduta egongo dira. Orduan, landare horiek jango dituen intsektu bat etorriko da eta, etsai barik, neurri gabe ugalduko da, izurri bihurtu arte.

Gure helburua beti agrosistemaren oreka lortzea da, hau da, autorregulazio gaitasuna hobetu.

Begirada aldatu eta arazoak gai kimikoen bidez konpondu beharrean prebenitu egiten ditugu. Horrek ezagutza eta obserbazio gaitasun handiak eskatzen ditu.

Ikastetxean ortu txiki bat izateak ez du oso ekoizpen handia izango, ez da izango urtean ezta letxuga bat ere ume bakoitzeko. Orduan, zergatik edo zertarako ortu bat ikastetxean?

Natura eta ortugintza ekologikoaren inguruan ezagutza eta esperientzia zuzenak lortzea da helburua. Eskolako baratzea laborategi bat da eta eskolako kimika-laborategian ez dugu espero eskolako ume guztientzako medizina egitea, ezta? Laborategia ikasteko da, gai bati buruzko jakingura pizteko. BEHATU egin dezakegu ortuan dagoen guztia: barazkiak eta gainerako izakiak.

Zer ikas dezakegu beste ikastetxe batzuetako esperientziatik?

Ortua denon gauza dela. Zenbat eta arlo gehiagok parte hartu, orduan eta arrakasta izateko aukera handiagoa. Pertsona bakan batzuen etengabeko esfortzu pertsonalak epemuga laburragoa du. Denon artean baldintzak sortu behar ditugu jarraipena izan dezan eta ikastetxearen beste elementu bat bilakatu dadin.

Aholkatzen diguzuen metodologia da Gaspar Caballerok diseinatu duen *parades en cretall* da. Zergatik aholkatzen diguzue metodologia hori?

Garrantzitsua da egoera bakoitzean egokienak diren teknikak aplikatzea. Bilatu behar ditugu emankortasuna eta biodibertsitatea. Ez dugu zehatz-mehatz Gasparren metodoa jarraituko. Berak erabiltzen dituen alor neurriak aukeratu ditugu, baina jarraituko ditugun oinarriak (alorrak ez zapaldu, ongari organiko geruza lurraren gainean ezarri, lurrari bira ez eman, lore koloredunak eta landare usaintsuak landatu...) ez dira bere metodoan aplikatzen soilik; munduan zehar herri nekazari askok erabili izan dituzten teknikak dira horiek. Naturaren estrategia nagusia kopiatzea da azken finean: ANIZTASUNA. Deigarria da ikustea estrategia hori bizitzako alor askotan ezinbestekoa dela.

ORTUARI BURUZKO KRONIKA

Denon artean jarri nahi dugu martxan baratzea eskolan. Hasieran zenbait gurasok lan egin dugu proiektua diseinatzen, lekua atontzen (ureztatze sistema, alorrak bereizi, lurra lanberritu...) eta konpostagailua egiten.

Gero, ama batzuek ipuina kontatu zieten ume txikienei eta azafraiak ereiten lagundu. Espero dugu zuen azafraiak ederrak egotea! Eskertuko genizueke argazkiak guri helaraztea. Webgunean jarriko ditugu.


Ondoren bi tailer egin ditugu. Lehenengoa azaroan. Gure inguruan zer landare ateratzen den ikasi genuen eta landareek ondo hazteko zer behar duten. Lurra lantzeko aitzurra hartu genuen guztiok, txikienek ere bai, nahiz eta gainerakoentzat arriskutsu samar izan. Lurreko mamorrotxoak behatu genituen. Animalia hauek guztiak zeregin bat dute ortuan. Zizareek, adibidez, lurra ongarritzen dute. Ehunzango bat eskuetan hartu genuen argazkia egiteko, baina hain azkar zebilen ze beti mugitua ateratzen zen argazkia.

Amaitzeko, konpostagailuak ikusi genituen. Egurrez egindako tiradera handiak dira. Bertan hondar organikoak usteltzen dira eta humus bihurtzen dira. Humusa da, hain zuzen ere, landareek behar dituzten elikagaietan oparoa den lurra.

Bigarren tailerra urtarrilean izan da. Oraingoan ilarrak eta babak erein genituen baratzean, baita berakatzak ere. Gero beste lur mota bat erakutsi ziguten Aitorrek eta Robertok, baratzekoa baino beltzagoa; ontzi batean zekarten. Eskuak sartu genituen ontzian: lurra sasoian zegoen, hanpatu, samur eta epel. Usain gozoa zuen eta atsegina zen lur hura ukitzea. Baina... halako batean hura zer zen esan ziguten. A zer nazka! Zizare kaka ez zen, bada! Denok atera genituen eskuak ziztu bizian ontzitik. Orduan ez zitzaigun hain gozoa eta leuna iruditu!

Beno, nazka guztia gainditu eta beste hazi batzuk erein genituen lur horretan jogurt-poteetan etxera eramateko. Ikusiko dugu zer alde dagoen etxean ditugun hazien eta baratzean erein ditugunen artean. Ea zein hasten den lehenago.

Hurrengo tailerra otsailaren 12an izango da. Irrikatan gaude berriro baratzera hurbiltzeko. Haziak hozituko ote ziren?



LITERATUR TXOKOA - Ipuina

BARATZE EKOLOGIKOA. Paloma Strachan (LH4B, 9 urte)

Bazen behin herri oso urrun batean, etxe bat mendiaren erdian zegoen. Bertan ama bat, aita bat eta hiru ume bizi ziren. Lehen neska bat zen eta Maider zeukan izena, bigarrena eta hirugarrena mutilak ziren, Nikolas eta Gabriel zuten izena. Maider txikiena, Nikolas handiena eta Gabriel ertaina.

Egun batean hirurak telebista ikusten ari ziren, telesail bat, “gure herrian” izeneko. Egun horretan “gure herrian” hiru mutil baratze ekologiko bat egiten atera ziren.


Orduan, Gabrieleke ezan zuen:

- Maider, Nikolas, nirekin etorriko zarete amari eta aitari galdetzera ea baratze bat egin ahal dugun?

- Primeran!!!- erantzun zioten Maiderrek eta Nikolasek.

Orduan, gurasoengana joan ziren.

- Aita, ama, egin ahal dugu baratze bat, mesedez?- galdetu zioten ezpainak kanporantz eramanda. Amak eta aitak ezin izan zioten aurpegi horri eutsi. Horregatik baietz esan zuten:



- Bale... ez badago beste irtenbiderik... utziko dizuegu... baina ondo bukatu lana.

Pozik eta hasteko gogoz zeudela, konturatu ziren materiala behar zutela.- Materiala behar dugu!!!

Hiru umeak ganbarara korrika abiatu ziren. Hor gauza mordoak aurkitu zuten, hartu eta kanpora irten ziren. Aitari erakutsi zioten aurkitutakoa.

- Orain bai, bazaudete prest lanean hasteko. Ama hazien bila joango da.

Orduan baratzea egiten hasi ziren. Lehenbizi, lurra prestatu zuten; gero, hesi txiki bat jarri zuten haren inguruan; azkenik, haziak landatzen hasi behar ziren. Bakarrik pauso hori falta zen. Momentu horretan ama iritsi zen, hazi mota mordoekin. Aitak gauzak landatzen zituen. Tomate hazi bat hartu, lurpean jarri eta estali zuen. Horrelako asko jarri zituen, baina mota desberdinak, porruak, kalabazak...

Baratzea bukatuta zegoen. Egunero ureztatu behar zuten, landareak hazi arte.

IPUINA - BARATZE EKOLOGIKOA

Asteak pasa ziren. Landareak lurpetik ateratzen hasi zirenean aita likido baten bila joan zen. Botatzera joatean Nikolasek esan zuen:

- Aita! Zer da landareari botako diozun hori?

- Likido hau landarea jaten duten zorroak hiltzeko da.

- Baina kaltegarria bada beraientzat... guretzat ere bai!- erantzun zuen Nikolasek. Oso erantzun zentzuzkoa zen. Denak pentsatzen hasi ziren.

- Zergatik ez dugu “gure herrian” programan bezala egiten... baratze ekologiko bat!!!- proposatu zuen Mainerrek.

Orduan Gabrielelek esan zuen:

-Bai, bai, hori da! Landareak elkarren ondoan jarriko ditugu, horrela zorroek beste landareak ikusten dituztenean joango dira.


- Ideia bikaina!!!- konturatu zen aita likidoa baztertzen zuen bitartean.

-Horrela denok pozik: zorroak ez dira hilko, gure landareak haziko dira eta guk landare osasungarriak jango

ditugu. Honek lezio inportante bat ematen digu, batera indartsuagoak garela, bata besteari lagundu ahal diogulako-azaldu zuen amak oso pozik ikasitakoarengatik.

Horrela familia hau sano eta indartsua izan zen.

Baratze ekologikoak interesatzen bazaizkizu istorio hau irakurri eta gero, ez zara oso urruti joan behar baratze ekologiko bat ikustera, gure eskolan, Zabalganen, ere badago bat. Hor bertan irakasten diete umeei irakurri duzun baratze mota honetaz.



LITERATUR TXOKOA - Olerkia

Udaberrri

Negu ondoan
Udaberria
Ludi guztian
Pozez artua.
Gizon ta txori
Izadi guzti
Abeska dabil
Udaberriri.
Gaur loretxu bat
Gure ortuan
Biar beste bat
Aren ondoan.
Urrengoroko
Agertuko da
Ortu guztia
Lorez betea.
Txorik abestu
Lorak lirrindu,
Doinuz, urrinkaiz
Ez ni zoratu.
Udaberria
Mandataria
Amets gozoa
Zure berria.

Alejandro Bilbao, *Erramun Maruri*.

ZABALGANA ESKOLA POESIA I. LEHIAKETA

Gaia: libre.

Hitz kopurua: 100 hitz gehienez.


Hizkuntza: euskara

Nork parte har dezakeen: 7 urtetik gorako umeak.

Saria: Olerki onenak liburuxka txiki batean argitaratuko dira.


Olerkiak bidali behar dira honako helbide honetara:
poesiazabalgana2014@gmail.com. Mezuan datu hauek adierazi
behar dira: izen-abizenak, adina, maila eta gela.

Bidaltzeko epea: 2014ko martxoaren 29ra arte.



IRUDIEN TXOKOA

Giuseppe Licari. Humus. Ezkutuko lorategiak, 2012 Tent Rotterdam. Gune espezifikoako instalazioa: zuhaitzen sustraiak. Sabaiko egitura, zuhaitzen sustraiak, lanpara halogenoak.



ALDIZKARIAN PARTE HARTZEA

EKARRI ZURE IDATZIAK ETA ZURE IRUDIAK


Literaturzaleak behar ditugu, euren lanekin laguntzeko prest daudenak. Adina ez da muga. Saiakerak, kontakizunak edo poemak euskaraz idazten badituzu eta nahi baduzu argitaratu, hau izan daiteke zuretzako aukera.

Irudizaleak ere behar ditugu. Argazkia, ilustrazioak, marrazkiak nahi ditugu.

Bai testuak bai ilustrazioak guraso elkartearen gutunontzian utzi daitezke, edo eskura eman elkartearen gelan. Formatu digitalean badaude honako helbide honetara bidal ditzakezu:
sasoizabalgana@gmail.com

Gaia librea izango da oro har, ez badugu alde zuretik iragartzen gai zehatz bat (ikastetxearen webgunean iragarriko dugu, <http://www.zabalganaeskola.org>, guraso elkartearen atalean, Sasoi azpiatalean).

Testuek gehienez 300 hitz izan behar dute.




Beharrezkoa da egilearen izen-abizenak jartzea (eta umeen kasuan adina, maila eta gela). Hala ere, nahi izanez gero, ez dugu argitaratuko egilearen izena. Ezizena jartzea ere posiblea da, horretarako ezizena zein den ere esan behar diguzue.

ERREZETAK (bizkaieraz)

PISTOA

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 4 kalabazin
- Kipula bat
- Piper gorri bat
- Piper berde bat
- Tomate heldu bat
- Arrautza bi
- Olioa
- Gatza




Prestatzeko area:

Osagai guztiak prestau behar dira; hau da, garbitu, zuritu, haziak kendu eta txikitu. Lapiko baten olio apur bat botako dogu eta, bero dagoanean, osagaiak gehituko doguz banan-banan: lehenengo, kipula; hiru minutu geroago, piperrak; geroago, tomatea; eta, azkenik, kalabazinak eta gatza. Su eztian izango dogu. Arrautzak irabiatuko doguz. Lapikoan dogun nahastea biguntzen danean, arrautzak botako doguz. Danari eragin, eta minutu baten itxiko dogu egosten.

PIPER BETAEK

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 18 pikillo piper
- Kipula bi (txikituak)
- Berenjena erdia (txikitua)
- Piper berde bi (txikituak)
- Azenario bat (egosia)
- Koilarakada bat Maizena
- Kikara bat esne
- 200 ml esnegain
- Oliba-olioa eta gatza




Prestatzeko area:

Betegarria: kipulea eta piper berde bat erregosiko doguz. Eginda dagoanean, berenjenea gehituko dogu. Eragin, eta bost minutuan izango dogu prijitzen. Ondoren, gainerako osagaiak botako doguz: azenarioa, pikillo piper bat, Maizena (eragingo dogu), esnea eta gatza. Su motelean egosiko dogu minutu bian, eta loditzen danean, erretilu baten iminiko dogu. Hotzituten itxiko dogu.

Saltsea: kipula bat prijiduko dogu. Piper berde bat gehitu eta, bigunduta dagoanean, pikillo piper bat botako dogu. Esnegaina bota, eta gatz apur bat ere bai. Ondo irabiatuko dogu. Lodiegi badago, esne apur bat botako dogu. Piperrak betegarriagaz bete eta saltsea ganetik botako dogu. Berotu eta zerbitzatu egingo dogu.

DEIALDIAK



INAUTERIAK: otsailaren 28a

Familian egiteko ekintza. Auzoan zehar kalejira guk egindako mozorroak jantzita.

Umeentzako eta helduentzako mozorro tailerra. Diseinua egin, moztu eta josi mozorroak.

Tailerraren egun-orduak: otsailaren 12an, 19an eta 26an, 15:30etik 17:30era. Kalejiran irteteko: otsailaren 28an, ostirala, 19:00etan.

Lekua: guraso elkartearen gela.

Izen ematea: guraso elkartearen gelan otsailaren 10ean, 16:30etik 17:30era; gutunontzian oharra utzi edo mezua bidali (ampa@zabalganaeskola.org). Izena eta harremanetarako telefonoa adierazi behar dira.

Kuota: Materialen gastuak. Partaideen artean ordaindu behar dira.

Antolatzaileak arduratuko dira materialak ekartzeaz: artaziak, josteko makina, haria, modeloak, patroiak...

UMEENTZAKO POESIA TAILERA. Martxoan

Gaztelaniaz eta euskaraz. Zenbait poema hautatuta eta adinari egokituta errezitatzea. Poesiaren didaktika: lengoia laua eta espresio lengoia bereiztea, lehenengo harremana irudizko lengoiairekin eta literatur tropeekin. Poema errealitate zirrargarri baten espresiozko komunikazioa baino ez da.

Egun-orduak: martxoaren 5ean, 12an eta 19an, 16:30etik 17:30era.

Norentzat: 7 urtetik 10era bitarteko umeak, literatura gustukoa dutenak.

Lekua: guraso elkartearen gela.

Izen emateko: guraso elkartearen.

Kuota: 3 €.



JOLASAK EUSKARAZ FAMILIAN

Norentzat: 2 eta 5 urte bitarteko umeak.

Egunak: otsailaren 17an (gurasoak) eta 20an (gurasoak eta umeak).

Ordua: 16:45-18:45

Izen ematea: guraso elkartearen gelan otsailaren 10ean, 16:30etik 17:30era; gutunontzian oharra utzi edo mezua bidali (ampa@zabalganaeskola.org). Umearen izena, adina eta harremanetarako telefonoa adierazi behar dira. Dohainik.

DENBORAPASA - Letra zopa: 14 barazki



X K A R A R B I U A L O K A R X I X O B A
R O S P S S U Z L R L X Z S U A R S P Z O
R P O R R U T I K A R T K P K T P I T E R
L O X K K S G U R A Z A G A K S A Z O R B
B T J H Z X M Z A T A I H T M B T U X B U
O I L A R G K Z L X L U K A X E X L X A R
T I P U L A E K R T A K P T L R T E K K U
T X J H B N R Z T J B A B A R A X J A B H
B O X L A X M K R K B L B P K K R K L B O
R T A R S M E L R M X U G L M A K A R D O
R M I H M E R O L A Z A H M R T A Z L M Z
J O S P K A Z K L J A I H S R Z J S I K J

DENBORAPASA - Eman kolorea zure ortuari.



KOMIKIA

